

Euskara Sistema Eragilean



IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA
SOZIOLOGOA

Aplikazio bat izatetik Sistema Eragilean txertatzera igaro behar du euskarak, Maialen Lujanbioren esanetan. Ados! Euskararen premia gizartearen elementu periferikoetara mugatzen bada, jai dugu epe ertain-luzean.

Zein da, bada, gure sistemaren zutabea? Zalantzarik gabe, ekonomia. Horrek ezartzen ditu gure bizi baldintzak maila profesionalean eta horretara bideratutako hezkuntza sisteman. Baita, arlo pribatuan ere, kontsumitzaile bezala. Heziketa-Ondasun-Kontsumo hirukoaren arabera dugu ongizate maila aberatsa edo txiroa, eta horren gainean esleitzen zaigu estatus sozial apala edo jasoa.

Balio etikoak, filantropikoak eta antzekoak ez daude bizi garen munduaren muinean. Kalitate horiek guztiak izanda ere, pobrea ez da *nor* gure gizartean; ez du bertan eraginik.

Horregatik, euskara osasuntsu eta luzaro biziko bada, bi aukera baino ez dauka. Bata, gure sistemaren *aldarea* den ekonomian euskara txertatzea. Bestea, utopia; alegia, egungo sistema globala eraldatzea eta oso bestelako balioak izango lituzkeen mundu berri bat garatzea, non, besteak beste, hizkuntza guztiek maila bera izango luketen.

Utopiari uko egin gabe eta horren atzetik pausoak eman bitartean, eskura

dugun planteamenduari ekin behar zaio epe motzean: euskara Sistema Eragilean txertatzeari. Horrela, gainera, globalizazioaren berdinkeriarako joera orojaleari nolabaiteko galga jarriko genioke; berezko dinamika hori zertxobait oztopatuko genuke, behinik behin.

Horretarako aipatu ohi den giltzarria lan mundua da. Lanpostuetara eraman behar dela euskara eta, era horretan, langileek euskara jakin beharko luketela. Ados, baina hizkuntza eskakizunak aspaldian ezarri ziren herri administrazioan, eta neurri horrek ez du erabilera orokorrik automatikoki ekarri.

Ekonomiaren logikari jarraiki, soilik negozioarako probetxugarria denean egingo zaio lekua euskarari. Zergatik eta zertarako nahasi euskara finantzetan, enpresetan, zerbitzutan eta abarretan, dirurik eman ezeari? Merkatuaren estutasunean *alferrikako* beste gastu bat gehitzeko? Lehiatzeko abantailaren bat izan beharko du, ezinbestean.

Puntu horretara iritsita, guk geuk, kontsumitzaile, langile, sindikalista edo bezero gisa, badugu zer esan. Botereek aldeko neurriak ezartzearekin batera, euskararen eskaera komunitateak egin behar du; horrela baino ez da euskara errentagarri izango; horrela baino ez da Sistema Eragilera iritsiko. ●

Apirilak



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Badu bulta bat, gure ingurune naturala iratzartzen ari dela. Sapa igo-tzen doa arbola, zuhaitz eta kaktusen zainetan gora. Goizetan, Eibarren suge-belarra deitzen duten hartz-baratxuri hostoak murtzikatu eta indar hozbera horren eraginak nabaritzen ditugu gure baitan. Udaberriak ez dira isilak. Udaberriak ez dira ahulak. Alderantziz.

Maite dugun poeta handi batek *apirila ankerra* abestu zuen. Ismael Kadaré albaniarrak ere badu *Apirila hautsia* izenarekiko aspaldiko nobela bat. Laugarren hilabetea urteko garrantzitsuen da, hunkiduraz eta kemenez betea heldu

delako. Polenak sudur zuloak emokatzten ditu, erregina nagiek akuilaturiko erle mehatxatuak kardabera horietan dabilta lanean, karraskaz, eta jendea, nola jantzi ez dakiela errepikatzen dabil.

Funtsean zer daki jendeak naturaz, glifosatoa sainduz eta eros-ahal handiago nahikundez mozkor, tematzen denean. Segur aski, bestela bizi gaitezke, gutxiagorekin, hobeagorekin. Baina diskurtso horiek ez dira entzungai oraino. Atalante zine-gela berriaren aldamenetik, apiril arrastietako kobre koloreko Baiona gaineke zerua mirestea, etorkizuna eskura dugula espero dugu. ●